



GORBEIA SUZIEN SKYRACE ARAUDIA 2026

1. Eguna eta lekua: Gorbeia Suzien mendi lasterketaren XIII. edizioa 2026ko irailaren 26an izango da. Zeanuriko herrigunetik abiatuko da goizeko 9etan.

2. Ibilbidea: 32 kilometro luze eta 2400m desnibel positibo izango ditu Gorbeiako parke naturalean zehar. Antolakuntzak ordezko ibilbide bat prestatuta izango du, ibilbidean edo lasterketaren prestaketan arazoak sortzekotan. Ustekabeko arrazoi pisutsu batengatik antolakuntzak lasterketa bertan behera uzteko ahalmena izango du. Kasu horretan, antolakuntzak beste data bat ezarriko du lasterketa egiteko.

3. Puntuagarria: SKYRUNNER WORLD SERIES-eko proba izango da. Araudiak: <https://www.skyrunnerworldseries.com>

4. Parte hartzea: 18 urtetik gorako edozein korrikalarik har dezake parte. Izena ematen duen orok araudi hau eta ISFk ezarritakoa bete behar ditu. Antolakuntzak ondorioztatzen badu parte hartzailearen batek lasterketaren osotasunari kalte egin diezaiokeela, honen parte hartzea ukatzeko ahalmena izango du.

5. Kategoriak: Emakumezkoen eta gizonezkoen kategoria absolutua egongo dira.

6. Izen-ematea:

6.1 Izena emateko epeak eta dortsalak:

- XIII. GORBEIA SUZIEN mendi lasterketan aurre izen-emateko epea **martxoaren 1ean** zabalduko da 09:00etan, eta **martxoaren 22an** 23:59 amaitu.
- Aurre izen-ematea **www.gorbeiasuzien.eus** web orrian dagoen formularioa beteta egin beharko da.
- Antolakuntzak 75 dortsal erreserbatuko ditu: ekitaldi guztietan parte hartu duten korrikalariarentzat, azken ekitaldian (2025) denborarik onenak lortu dituzten korrikalariarentzat, Zeanuriko herritarrentzat eta gutxienez 150 emakume korrikalariren parte hartzea bermatzeko.
- Antolakuntzak 50 dortsal erreserbatuko ditu: eliteko korrikalariarentzat, babesleentzat eta zirkuituko korrikalariarentzat.
- Gainerako 475 dortsalak zozketa bidez esleituko dira aurre izen-ematea ezarritako epearen barruan egin duten korrikalarien artean.

6.2 Zozketa eta arauak:

- Zozketaren arauak:

1. Korrikalari bakoitzak zenbaki bana eskuratuko du.
2. Aurreko urteetan zozketan parte hartu eta dortsalik egokitu ez zaien korrikalariei, zenbaki bat gehiago emango zaie dortsalik izan ez duten urte

bakoitzeko. Aurreko urteren batean dortsala izan duten korrikalariei hurrengo urteetako zozketak bakarrik hartuko zaizkie kontuan.

3. Arratiako bailaran bizi direnak beste zenbaki bat gehiago izango dute zozketan: errolda agiria bidali behar dute izenemateak@gorbeiasuzien.eus helbidera aurre izen-emate epea bukatu aurretik.

- Zozketa Zeanuriko udaletxean egingo da, 2026ko **martxoaren 26an**. Zozketa nominala izango da eta zenbaki bakoitza ausaz aterako da. Ateratako lehen 475 zenbakiei emango zaie dortsala. Gainontzeko zenbakiak itxaron zerrendara pasatuko dira zozketak markatutako ordena errespetatuz. Dortsala egokitu zaien pertsonen zerrenda zozketaren egunean bertan lasterketako web orrian eta sare sozialetan argitaratuko da.


6.3 Izen ematea gauzatzeko modua:

- Dortsala egokitutakoen zerrendan egongo direnak 70 euroko ordainketa egin beharko dute www.gorbeiasuzien.eus web orriko pausuak jarraituz **martxoaren 30etik** aurrera.
- Ez da korrikalaririk onartuko diru sarrerarik egin ezean, horretarako **epe muga 10 egunekoa** izango da mezua jasotzen duzuen egunetik hasita (jasoko duzuen mezuan defektuz 48 ordu dituzuela jartzen badu ere), bestela, itxaron zerrendako hurrengoari emango zaio izen ematea egiteko aukera.
- Dorsalen itzulketa eskuratzeko itxaron zerrendako korrikalariren batek haren lekua hartu beharko du:

2026 URTEA	ITZULIKO DEN DIRUAREN %
APIRILA-MAIATZA	%80
EKAINA- UZTAILA	%70
ABUZTUA	%60
IRAILAREN 1etik aurrera	lo EZ DA ITZULKETARIK EGINGO

7. Eskubide eta bete beharrak:

- Gorbeia Suzien Mendi Lasterketan izena emango duten korrikalariek lasterketaren eta ISFren arautegia errespetatu beharko dute.
- Dortsala hartzen duten momentuan hau eskuratuko dute: proban parte hartzeko eskubidea, istripu eta erantzukizun zibileko aseguruia, antolakuntzak ezarritako zerbitzuak erabiltzeko aukera eta lasterketako oparia.
- Dortsala norberarena eta transferiezina izango da. Horregatik, korrikalariak berak hartu beharko du dortsala, NANA aurkeztuz ezarritako lekuan eta orduan. Epe ohietatik kanpora ez da dortsalik banatuko.



11. Denbora mugak:

- 6 ordu eta 30 minutu baino lehen iritsi beharko da helmugara. Denbora hori gaindituz gero, sailkapenetik kanpo geratuko da korrikalaria.
- Antolakuntzak korrikalaria kanporatu dezake tarteko kontroletan aurreikusitako denbora mugak betetzen ez dituelako, lasterketako araudia errespetatu ez duelako, markatutako ibilbidea jarraitu ez duelako, dortsala dagokion moduan ez daramalako, antolakuntzako kideen esanak betetzen ez dituelako edota lasterketako kideekin jarrera desagokia erakutsi duelako.
- Kontrol puntuetan aurreikusitako denbora mugak:

KONTROLA	Km	DENBORA MUGA
Gorbeiako aterpea	9	110 min
GZT aterpea	12	140 min
Gorbeiako kurutzea	14	180 min
Isidron txabola	16	210 min
Zenigorta	21	300 min
Lanbreabe	27	345 min

- Lasterketa osoan zehar antolakuntzako bi korrikalari azkenengo korrikalarien atzetik joango dira. Korrikalariren bat kanporatzekotan, kontrol punturik hurbilenean dortsala entregatu beharko du eta lasterketa bertan behera utzi beharko du antolakuntzako kideek agindutako moduan.

12. Sariak:

Hauek izango dira sariak:

Posizioa	Emakumeak/Gizonak 2026
1	1000 €
2	600 €
3	400 €
4	300 €
5	200 €
6	100 €
7	100 €
8	100 €
9	100 €
10	100 €

13. Azalpen batzarra:

Antolakuntzak azalpen batzar bat eskainiko du lasterketa bezperan, 2026ko irailaren 25ean, arratsaldean, Zeanuriko frontoian. Bertan, ibilbidearen zehaztasun guztiak emango dira.

14. Dorsal banaketa:

Zeanuriko frontoian emango dira dorsalak lasterketa bezperan, 2026ko irailaren 25an, 17:30etik 20:00era, baita lasterketako egunean bertan ere, goizeko 07:00etatik 08:30era.

15. Ingurumena:

Gorbeia Suzienek 2024an Europarcek FEDMEren bidez emandako Green Label ingurumen ziurtagiria lortu zuen ingurumen praktika onengatik, eta hurrengo edizioetan berritu egin zuen. Aurten, gainera, Gorbeia Suzien lasterketak bat egingo du Kilian Jornet Fundazioak Green Trail Concept izenarekin garatutako trail ekitaldietarako jasangarritasun ziurtagiria lortzeko bultzatutako ekimenarekin.

Lehiakide bakoitzaren betebeharra da proba garatzen den ingurumena errespetatzea, eta, era berean, bere hondakinak, latak, paperak eta abar eraman beharko ditu antolakuntzak adierazitako lekura edo lekuetara iritsi arte. Lehiaketan hautsitako makila kontrol batean entregatu ahal izango da. Gaituta ez dagoen eremu batean uzten edo botatzen dituen korrikalaria deskalifikatu egingo da.

- Korrikalari guztiek antolakuntzak markatutako ibilbidea egin beharko dute, hau ez errespetatzeak edo ezarritako kontrolen bat ez igarotzeak 15 minutuko zigorra edo deskalifikazioa ekar lezake.
- Parte-hartzaileek, ibilbidean zehar, kontrolen ardura duten pertsonen jarraibideak bete beharko dituzte uneoro. Hori ez egiteak 15 minutuko zigorra edo deskalifikazioa ekar lezake.
- Lehiakideek kirolean jokatu behar dute uneoro, eta errespetua erakutsi behar diete gainerako kirolariei, epaile-taldeari, gainbegiraleei, kontrolei eta erakundeko kideei. Hori ez egiteak 15 minutuko zigorra edo deskalifikazioa ekar lezake.
- Lehiakideek gel eta bilgarriak dorsa zenbakiarekin identifikatuta eramango dituzte. Irteerako materialaren kontrolean, nahitaezko gainerako materialaren ondoan erakutsi beharko dituzte. Arau hori ez betetzeak probatik deskalifikatzea ekarriko du.
- Parte-hartzaileek ez dute zaratarik eta oihurik egingo, laguntza-eskaeren kasuan izan ezik. Arau hori ez errespetatzeak 15 minutuko zigorra edo deskalifikazioa ekar lezake.
- Erabat debekatuta dago parkeko edozein elementu, flora eta abar haustea edo aldatzea. Horrek 15 minutuko zigorra edo deskalifikazioa ekar lezake.

16. Osasun zerbitzua:

Ibilbidearen puntu estrategikoetan osasun zerbitzua jarriko da, baita irteera gunean ere.

17. Segurtasuna:

Antolakuntzak ibilbidea alda lezake korrikalarien segurtasuna bermatzeak hala eskatuko balu. Bertan behera ere utz dezake lasterketa eguraldia edo halabeharrezko beste edozein baldintza medio.

18. Istripuak:

Korrikalariak zauritutako kideak laguntzera behartuta daude, baita kontrol puntuetan informatzera ere.

19. Ezinbesteko materiala eta oharrak:

- **Haizearen kontrako jaka** eramatea derrigorrezkoa da eta bakoitzaren neurrikoa izan beharko da, mahuka luzeduna eta txanoduna. Txano gabekoa izatekotan, aparteko txapela, buffa edo burua osorik estaltzen duen antzeko janzkiren bat eraman beharko da.
- **Manta termikoa** eramatea derrigorrezkoa izango da.
- Eguraldiaren arabera, antolakuntzak beharrezko material gehigarria eska lezake, adibidez, euritarako jaka.
- Anoa-guneetan **ez da edalontzirik egongo**, korrikalariak berak eraman beharko du bere edalontzia.
- Lehiakideek **gel eta bilgarriak dortsal zenbakiarekin identifikatuta** eramango dituzte. Irteerako materialaren kontrolean, nahitaezko gainerako materialaren ondoan erakutsi beharko dituzte. Arau hori ez betetzeak probatik deskalifikatzea ekarriko du.

20. Oharrak:

- Derrigorrezko materialaren kontrola egingo da irteeran eta helmugan. Irteerako kontrolera aurrerapen nahikorekin joan behar da.
- Dortsala bular parean eraman behar da, eta ahal den neurrian, une oro ikusgai. Kontrol guztietan erakustea eskatuko da.
- Lasterketa uztekotan kontrol batean egin behar da. Derrigorrezkoa izango da dortsala kendu eta antolakuntzaren esku uztea. Berreskuratu nahi izatekotan, antolakuntzari jakinarazi behin lasterketa amaituta.
- Ez da antolakuntzaren betebeharra lasterketa utzi duten korrikalariak herrigunera eramatea. Hala ere, antolakuntza laguntzen saiatuko da posible den neurrian.
- Hornikuntzarik ezin da jaso hornidura guneetatik kanpo.
- Bastoiak erabili daitezke. Hala ere, irteeratik San Justoko ermitaraino ezin dira erabili eta tolestuta eraman behar dira. Bastoiak kontrol eta hornidura guneetan hartu eta utzi ahal izango dira, beti ere korrikalariaren ardurapean.
- Lasterketa egunean kontsigna zerbitzua egongo da dortsalak hartzeko gunearen ondoan.
- Irteerako guneak eta beroketa guneak ikusi irudian.

